

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 46. atala

DATA: 2025/09/25

GUREAN

ZER JATEN DUTE GURE IKASLEEK?

Datorren asteartean hitzaldia eskainiko digute Aibakeko arduradunek gure ikasleak nola elikatzen diren azaltzeko asmoarekin. Arratsaldeko 17.00etan Ikus-entzunezko gelan izango da bilera. Landuko diren gaiak elikagaien jatorria, menuen prestakuntza, alergiak, kalitate kontrolak eta Ekinfood proiektuaren ardatzak izango dira, besteak beste. Hilabete guztietako menuak ikastolako webgunean aurki ditzakezue eta eguerdian zer bazkaltzen duten kontuan hartuta, afari orekatua diseinatzea errezagoa izan daiteke. Aibakekoek hainbat proposamen luzatzen dizkigute. Adi!



GURE INGURUAN

ARRIAGA SERAFINAK

NOIZ: IRAILAK 24TIK 29RA ARTE



Jolastokietako jaien ondotik, Alzako azken festak helduko dira asteburuan: Arriaga serafinak. Berezko jairik ez zuten zazpi gune alaitzeko antolatzea erabaki zuten hainbat lagunek duela pare bat urte, eta, hala, Erroteta, Arrizar, Arriberry, Santa Barbara, Elizasu, Los Boscos eta Darieta lotzen dituzten festak sortu zituzten. Iazko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, bueltan dira. Anima zaitzete!

EGITARAUUA:



ZER PROPASATZEN DUZU?

Hemendik aurrera hauxe izango da zuen txokoa. Familia, ikasle, irakasle eta langile guztiek hartu dezakete parte astekarian. Edozein abisu, iragarki, proposamen, plan guri helarazi eta astekarian argitaratuko dugu. Denon artean bizirik mantenduko dugu proiektua!



**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus**